

Bortxaren kontakizunetik, kontakizunaren bortxara

Joxe Azurmendi

Gure belaunaldiari bagagozkio, gehienbat frankismoaren uztarripeko ETA mugimenduak markatu gintuen, nahiz eta gerokoak ere aztarna sakinak utzi dizkigun. Dударik gabe, gu beste zerbait eta norbait izango ginen ETarik gabe. Beste biografia batek zizelkatuko zituen gure nortasunaren ertzak. Beste gauza batzuk ere ez ziren izan direnak izango, ETarik gabe.

Joseba Arregi

ETA desagertuta ere ez omen dira ETAK eragindako ondorio samingarri guztiak desegino. Gauza batean behintzat bat gatoz Joseba Arregirekin: hots, lan honetan zurkaiztuko dugun oinarritzko tesiaren arabera historian barrena gauzatutako gerra, sarraski, konkista eta okupazioen ondorio-mugarriak ez dira desegiten estrukturalak diren neurrian.

Patxi Baztarrika

Bortxak aurpegi asko ditu, ikasi nahi zaizkionak baino gehiago. Bortxaren izaera paradoxikoa bera dugu diogunaren froga bat: esate baterako, bortxa ez da soilik hondamendiaren iturri, erai-penaren arkitektoa, bortxa politikoa-ri zor zaizkio historian proiektu askatzaile askoren eraikuntzak. Bortxa dabil hain zuzen Baztarrikak horrenbeste gurtzen duen sistema politikoa-ren zainetan.

Joseba Egibar

«Zoru etikoaren» antzeppen lotsagarria adibide garbia izan da arazo politikoaren funtsa saihesteko. Ezagun da etikari buruzko lezioak emateko ahotsak perretxiko txarrak bezala ugaldutik direla gurean. Joseba Egibar ere asmo berberarekin datorkigu: otoi!, bortxa politikoaren alorrean ezin da halakorik eta holakorik egin inondik inora. Berezko autoritate moralaren jabe balira bezala, giza eskubideen ulerkerak testuinguru oroz gaindikoa dela iritzita.

Pako Aristi

Usteak uste, arrazoi emango nioke Pako Aristiri honako baieztapen honetan: «eragin zezakeen biolentziaren ondorioak ikusten» ez zuela jakin azkenaldiko ETAK. ETAK eta oro har ezker abertzaleak Euskal Herriari buruzko azterketa baikorregiak egin izan dituzte maizenik. Gure herriak jasan duen mendetako nazio zapalkuntza eta akulturazioaz hautemate arinegia erakutsi dute borrokalaria sutu askok aspalditik, ginena baino gehiago eta indartsuagoak ginelakoan jardun dute.

Jose Mari Lorenzo Espinosa

ETAREN borroka armatuaren arrazoiak planteatzerakoan, noraino joenezake atzera? Lorenzo Espinosaren proposamenen euskaldunok jasaten dugun gatazkaren sustraletara jo beharra dago, estatu batek bestea mende hartu zueneko, «nahiz eta horretarako askok eta askok nahi luketen baino atzerago jo behar izan».

Xabier Euzkitze

Giro ideologikoa itogarria bezain otzagarria denean, ozta-ozta izaten da adorerik bibliako egiazat hartzen ez den egia hegemonikoari atxikitzeko. Hori gertatu bide zaio Euzkitzeri ere: hiztegi batera jo du hitzaren definizio bila, ondoren hizkera hegemonikoaren esanera makurtzeko.

Laura Mintegi

«Moralak gaitzetsi dezake guardia zibil bat hiltzea eta txalotu Bin Laden edo Muamar al Gadafi asasinatzea». Ez dago zalantzarik horretan, ondo begien bistakoa baita Laura Mintegiren iritzia. Hildako guztiak ez dira berdinak, ez horixe.

Aintzane Ezenarro

Duda izpirik gabe, giza eskubideen aldeko aldarriek trumoiaren pareko burrunba eragin dute Euskal Herrian azken bolada honetan. Helburu nagusia: ETAREN asmoak eta eginak larrutzea. Errudunak aurkitzea, egiturazko bortxa zapaltzailea bide batez lausotu eta are estaliz. Aintzane Ezenarro, beste asko bezala, argudio horixe bera darabil biktima nor den eta nor ez den zedarrizteko lanean.



Lourdes Oñederra

Argizaiola saria Txillardegiri eman izanak atsekabetu egin zuen nonbait Lourdes Oñederraren kontzientzia. Borroka armatuaren jarduna zentzu pragmatikoan soilik kritikatzeari ez baitzitzaien bidezkoa iruditu. ETaren jardunarekiko etikaren ahots salatarria ere aditu nahi zuen Txillardegiren aldetik.

Jon Maia

Gizateriaren aniztasun kulturala eta linguistikoa modu sistemikoan desegiten ari diren honetan, zergatik ez du mundutar gehien arretarik pizten «biktima kulturalen» kinka larriak? Gizatasunaren kontzeptu murriztaile baten bakarrik esplikatu dezake munduan jazotzen ari den «etnozidio kulturala».

Iñaki Egaña

Kontua da «desordena larriak» gorabehera, sentimendu eta samurtasun sakonen hauspo izan ohi dela abertzaletasunaren sugarra, eta sugar hori ETako kideengan nola iratzarri zen adieraziko digu Iñaki Egañak.

azaroa

liburu gomendatua

Joxe Manuel Odriozola

Bortxaren kontakizunetik, kontakizunaren bortxara

ETAk jardura armatua eten zuenetik, azken hamarkadetakoa historiaren kontakizunak egunerokotasunera jauzi egin du. Joxe Manuel Odriozolak kontakizun hori kartografiatu nahi izan du, jakinik historia-kontakizun eta interpretazio oro ikuspuntu subjektibo eta ideologiko baten emaitza dela. Alegia, liburu honetan dagoen kontalari bakoitzak bere balio-sistema, posizio eta ikuspegi ideologikotik mintzo dela, posiziorik gabeko irizpiderik ez dagoelako. Egileak berak aitortzen digun bezala: «Nazio askatasuna eta borroka armatua edozein baldintzetan oximoron bat dela sinetsarazi digute. Gogo-giro horretan jokatzeko gure diskurtsoak, jokoaren arauak aurkariak ezarrita, eta hala eta guztiz ere partida jokatzeko me-rezi duela iritzita sartu gara joko-zelai labainkor honetan».



Aldaketa
urriaren
25a
baino lehen

0503021 TXALAPARTA

SAIAKERA

360 or.

Salneurria 17,80 €

Bazkideak 14,24 €

EGILEA



Joxe Manuel Odriozola (Altzo, 1948) euskal idazlea da. Gau-eskolen koordinatzaile eta euskaltegi irakaslea izan zen urte askoan. Euskal komunikabideetan ohiko kolaboratzailea da eta hizkuntza, hizkuntzalaritza eta abertzaletasunari buruz saiakera ugari argitaratu ditu hainbat sari irabaziz, besteak beste: *Euskal intelligentsiaren ideologia zantzuak* (2001), *Euskalgintzaren lekukoak* (2004), *Abertzaleak eta euskara: Edo nazio euskaldunaren gainbehera* (2008), *Estatu etnozidaren aurka* (2011).